



**SIMONE DE BEAUVOIR**  
**Bigarren Sexua eta eragina XX.**  
**mendeko Bigarren Bolada**  
**Feministan**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Letren Fakultatea, Historiako  
Gradua, Historia Garaikidearen Saila

*Egilea:* Eider Basterretxea Amutio  
*Zuzendaria:* Miren Llona González

2015-2016 ikasturtea

## Laburpena

Simone de Beauvoir XX. mendeko idazle, filosofo eta feminista frantziarra, aztertu beharreko ezinbesteko figuratzat jo izan da XX. eta XXI. mendeko Feminismoaren Historian. Hortaz, honekin Beauvoir eta bere *Bigarren Sexuaren* inguruan hausnartu nahi da, 70. hamarkadako Bigarren Bolada Feminista testuinguruan kokatuz, hobeto ulertzera heltzeko; horretarako hartan izandako eragin posiblearen inguruan lantzeraz bideratuko da lan hau, adierazitakoek emakumearen askapenean izandako garrantzia historiko-soziala aztertuz. Hau burutzeko, Feminismoaren Historia bi atal nagusitan banatuko da: alde batetik XIX-XX. mendeak eta hartan eskuratutako berdintasun politikoa, eta bestalde 70. hamarkadako neo-feminismoa, mugimenduaren garapen eta korrante desberdinak (Berdintasuneko Feminismoa, Erradikala...), eta honetan lortutako berdintasun soziala. Batetik besterako itzulian, eskubideen zabalpenean eta sexuen eta hauen harremanen arteko berdintasuna eskuratzeko bidean feministek egin izan duten borroka aztertu nahi da, Beauvoirren ideia berritzaileak bien arteko giltzarritzat hartu eta mugimenduan eragindako inspirazioarekin lotuz. Tartean, influentzia honetan, Betty Friedan edo Kate Millet bezalako figurak eta haien ekarpenak aztertuz. Bilakaeren testuinguru honetan kokatuko da Beauvoirren pentsamenduak 70. hamarkadan zehar jasandako erradikalizazioa, emakumeak dagokion autonomia birkonkistatzeari dagokionez. Aldaketa hau ulertzen ere ahaleginduko da lana. Gainera, XX. mende hasierako emakumeen hezkuntza-motaz ere jardungo da, mendearen bigarren erdialdearekin kontrastea ezartzeko. Hala, Simoneren bizitza-motaz eta hark jasandako bilakaera konstanteaz ere hitz egingo da.

Idea berritzaileok lanaren ardatz oinarritzkoena den “*no se nace mujer, se llega a serlo*” esaldiarekin laburtzen ditu: generoaren eraikuntza sozio-kulturala; hau da, emakumearen opresioaren arazoa detektatu ez ezik, gizonak hura mantentzera baliatutako bideak agerian utzi (amatasuna edo ezkontza tradizionalaren tranpa...) eta hartatik irteteko bide desberdinak baliatzen ditu, borroka-bide desberdinei ere bide irekiz. Hala, hauek azaldu eta influentzia 70. hamarkadako feminismoaren testuinguruan kokatu nahiko da.

Kontuan hartu behar izango da baita, Beauvoirrek emakumeen opresioa filosofia existentzialaren ikuspuntutik landu izan zuela, eta hori dela eta ezinbestekotzat jotzen dut lanaren zati bat ere kontzeptuaren inguruko azalpen txiki bat ematera bideratzea.

## Aurkibidea

Sarrera.....	3
1. Feminismoaren bilakaera historikoa.....	3
2. Frantziako testuingurua eta gizarte-giroa <i>Bigarren Sexuaren</i> argitalpenean.....	8
3. Simone de Beauvoir, feminismoaren hist orian figura giltzarria .....	8
3.1. Bizitza eta obra.....	8
3.2. Bigarren Sexua .....	9
3.2.1. Feminismo existentzialista eta emakumea “Bestea” bezala .....	10
3.2.1.1. Emakumea eta askatasuna, filosofia existentzialistaren ikuspuntutik.....	12
4. Bigarren Sexuaren garrantzia historikoa .....	12
5. 70. hamarkadako feminismoan Beauvoirren planteamenduek izandako eragina ...	14
5.1. Generoaren erakuntza sozio-kulturala .....	14
5.2. Amatasuna.....	16
5.3. Emakumea eta lana .....	18
5.4. Emakume eta gizonen arteko harremanak .....	19
6. Simone de Beauvoirren militantzia neo-feminista .....	20
6.1. Berdintasuneko feminismoa .....	20
6.2. Sistemaren kondena: Kapitalismoa eta Sozialismoa .....	21
6.3. Abortuaren aldeko borroka.....	22
7. Ondorioak.....	23
8. Eranskina .....	26
9. Bibliografia.....	30

## **Sarrera**

Nire lanaren helburu nagusia Simone de Beauvoir eta *Bigarren Sexua* obran azaldutako ideia iraultzaileak aztertu eta 70. hamarkadako neo-feminismoan izandako eraginaren inguruan hausnartzea da. Lana ulertu eta ideioek burutzeko ezinbestekotzat jotzen dut hortaz, lehenik eta behin feminismoaren oinarritzko bat ematea, kontzeptu orokorra ulertzekotan.

RAE-ren arabera “*Doctrina social favorable a la mujer, a quien concede capacidad y derechos reservados antes a los hombres*” litzake feminismoa.

Honetan emakumeen asimilazioa eskubide horietara planteatzen da, haiek eskuratuak baino emanak balira bezala; ez du borroka feminista bere lorpenen jabe bezala aurkezten. Bestalde, gizonaren kategoria izatera heltzea litzake feminismoa; emakumeak gizonak eraikitako gizartean atxikitu bezala aurkezten ditu, gizakiaren eta zibikotasunaren eredu bezala planteatuz.

Izatez XVIII. mende amaieran azaldutako mugimendu sozial eta politikoa da. Gizarte patriarkal baten baitan emakumea ordura arte gizonen aldetik jasandako opresio eta menderakuntza egoeraz ohartze-prozesuari deritzo, emakumeek talde-identitatearen kontzientzia hartu eta gizaki bizidun bezala gizonen pare altxatu eta sexu berdintasuna aldarrikatzea.

Kontzientzia hartuta, gizartea aldatu eta sexu-harremanen artean berdintasun ekonomiko, politiko eta soziala lortzearen aldeko mugimendua litzake. Sexu askatasunaren aldeko borroka, gizarte berri bat sortzea berdintasunean oinarritutako hezkuntza-eredu batez baliatuz. Feminismoa emakumeek bi mendeetan zehar helburu hauek lortzeko bideratu izan duten planteamendu teoriko eta borroka da (VVAA, 2008, 1-2).

### **1. Feminismoaren bilakaera historikoa**

Mugimendu sozial eta teoriko bezala Ilustrazioaren eskutik jaio zen. Frantziar Iraultzaren oinarrian gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen zen, gizakien autonomia eta eskubide politiko eta zibilen zabalkundea (Salas, 1996, 14). Hala ere, aldarrikapenok erdi mailako gizon zuriak baino ez zituzten hartzen, emakume eta gainerako gizarte-taldeak baztertuz (VVAA, 2009, 7).

*“Las ilustradas reivindicarán la inclusión de las mujeres en los principios universalistas que la Ilustración mantenía: la universalidad de la razón, la*

*emancipación de los prejuicios, la ampliación del principio de la igualdad y la idea de progreso” (De Las Heras Aguilera, 2009, 50).*

Printzipio horiek unibertsalizatu eta emakumezkoengana zabaldu nahi izan zituzten (Carnero, 2005, 4). Lehen mugimendu honen bi figura dira: Olympe de Gouges eta bere *Declaración de los derechos de la mujer y la ciudadana* (1791) eta Mary Wollstonecraft eta haren *Vindicación de los Derechos de la Mujer* (1792).

Sufragismoa deritzon mugimendua izan zen Lehen Bolada Feminista, XIX-XX. mende artean zehar hedatua. Ana de Miguel-en hitzetan, “*en el siglo XIX, el siglo de los grandes movimientos sociales emancipatorios, el feminismo aparece, por primera vez, como un movimiento social de carácter internacional, con una identidad autónoma teórica y organizativa*” (De Las Heras Aguilera, 2009, 50).

Mugimenduaren helburua emakumeen eskubide politikoen onarpena izan zen, boto-eskubidea eskuratzea (De Las Heras Aguilera, 2009, 52), ondoren eskubide zibilak zabaltzeko; balore demokratiko eta liberalak hedatuz emakumeen gizonenganako berdintasuna ere aldarrikatzen zuten. Behin hauek eskuratuta, parlamentuan emakumeen partaidetzaren bidez sistema osoa aldatuko zutela uste zuten (VVAA, 2009, 8).

Estatu Batuetan Elisabeth Stanton eta Lucretia Mott-ek, *Declaración de Sentimientos de Seneca Falls* (1848) diskurtsoa igorri zuen bozka eskubidea eskatuz. Honek gizonen eta sistemaren opresioa salatzen zuen eta eskubide sozial, erlijioso eta zibil hobeagoak aldarrikatzen zituen. Askatasuna zoriontasunarekin lotu zuen eta lege naturalaren jatorria ukatu. Emakumeak antolatuz, eskubideen aldeko akzio kolektiboa jarri zen martxan; 1890ean *National American Woman Suffrage Association* sortu eta 1920an aitortu zitzairen emakumeei bozka-eskubidea.

Europan, 1851tik aurrera Britainia Handian izan zuen mugimenduak indar handiena. John Stuart Mill diputatuak 1866an aurkeztu zuen lehen aldiz britainiar parlamentuan emakumeen botoaren aldeko eskaera (De Las Heras Aguilera, 2009, 52-53). 1897an Millicent Fawcett eta Lydia Becket-en buruzagitzan *National Union of Women’s Suffrage* fundatu zen. Demokratizazioaren ildoan, biolentziari uko egin eta bide legalen alde ekin zuten. 1903an Emmeline Pankhurst eta alabek, bide hartatik emaitzarik lortuko ez zuela ikusita, borroka zuzenaren eta indarkeriaren bidea hartu eta *National and Political Union of Women* taldea sortu (De Las Heras Aguilera, 2009, 54) zuten: gartzelaratuak izan ziren

askotan, eta gose-greben protagonistak; Emily Davison-ek bizitza ere eman zuten kausaren alde. 1917an eskuratu zuten boto-eskubidea (VVAA, 2009, 8).

Sufragismoa emakume burgesen mugimendutzat hartua izan zen. Protagonistak gizarteko erdi-mailako emakumeak izanda, emakume beltzen edo langileen aurkakotasunarekin egin zuten topo (De Las Heras Aguilera, 2009, 53).

Lehen Mundu Gerra inguruan mendebaldeko herrialde gehienek boto eskubidea lortuta, borroka lasaitu zen; gerra-artean mugimendu feminista krisian sartu eta kontzientzia feminista ez zen berriz piztuko Simone de Beauvoirrek 1949an *Bigarren Sexua* plazaratu zuen arte; XX. mende erdialdeko teoria feminista berriari eman zion bide, emakumezkoaren subordinazioari buruzko teoria eraikiz, emakumea zer zen azaltzekotan.

Ana de Miguel-ek esan bezala, “*Simone de Beauvoir constituye un brillante ejemplo de cómo la teoría feminista supone una transformación revolucionaria de nuestra comprensión de la realidad*” (De Las Heras Aguilera, 2009, 55).

Hala, 1970. hamarkadan jarri zen martxan Bigarren Bolada Feminista. Gizarte sexista, arrazista, klasista eta inperialista baten aurkako mugimendu sozial eta iraultzailea ematen hasi ziren testuinguru batean hedatu zen, 1968ko Maiatz Frantsesaz geroztik: arrazismoaren aurkakoa, ikaslegoarena, bakezalea eta feminista. Guztien helburua zen indarrean zegoen sistemaren eta erreformismoaren aurka eginez gizarte- eta gizon-eredu berriak eraikitzea eta gizakien arteko harreman berriak sustatzea (De Miguel, 2007, 4).

Honen harira, Simone de Beauvoirrek 20 urte lehenago idatzitako *Bigarren Sexuaren* planteamenduak berreskuratu zituzten 50. hamarkadan haren entzutea izan zuten feminista zaharrenek (Collin, 2008, 1). Hau eskuan hartuz, emakumeek giza-eskubideak izateko zuten eskubidea hasiko ziren aldarrikatzen, gizarte egonkor, baketsu eta gizakien arteko berdintasunean oinarritua<sup>1</sup>.

Obrak lehen entzuteak Estatu Batuetan izan zituen. Izan ere, garaiko gizarte estatubatuarrean aipatu mugimendu iraultzaileak gertatzen hasiak ziren jada, Vietnameko Gerraren aurkako protestan hedatu zen mugimendu *hippie*-a, kasu. Testuinguru berritzaile honetan eta Beauvoir inspiraziotzat hartuz aurkitzen dira Betty Friedan edo

---

<sup>1</sup> 1. irudia.

Kate Millet bezalako autoreak, teoria feminista sakondu eta Beauvoirren ideien gainean hausnartu ez ezik, ekarpen berriak egingo ziztuztenak.

Betty Friedan estatubatuarrek *Feminitatearen Mistika* (1963) emakume estatubatuarren bizimodua salatzen zuen, Beauvoirrek *Bigarren Sexua*-n emakume europarrekin egin bezala; natura femeninoari egiten zion kritika (Salas, 1996, 20) eta sistema patriarkala salatzen zuen, emakumearen autonomia eta lan munduan gizonen baldintza berdinen pean inkorporazioa eskatuz (De Miguel, 2007, 2).

*NOW (National Organization of Women)* izeneko mugimendu feminista fundatu zuen 1966an. Helburutzat emakumea lotzen zituen kateak haustea zuen eta bizitza sozial eta publikoan gizonekin bat eginez autonomia eskuratzea, sistemaren eraldaketa totala ematea. Garaiko elkarte feminista eraginkorrena izan zen, emakumeen mugimendu hauen izaera anitza izanda. Hainbesteko eragina izan zuen ze, nazioartean hedatu eta NBEak 1975. urtea Emakumearen Nazioarteko Urtea aldarrikatu zuen (Salas, 1996, 20).

Kate Milleten *Politika Sexuala* (1969) eta bere "pertsonala dena politikoa da" esaldiaren bidez sexu-harreman eta botere-harremanen arteko lotura ezartzen da. Honen arabera, botere-harremanetan, indar politiko-publiko-soziala duen taldeak influentzia hori darabil Beauvoirrek "bigarren sexua" deritzonaren gainean domeinua ezartzeko. Gizartearen izaera patriarkalak egiten du sexu harremanen atzean domeinu, botere, indar-harremanak aurkitzea, eta hartara, harreman sexuak kutsu politikoa izatea, gizonaren domeinuak markatua emakumearen gain; eraikuntza soziala da, pertsonak beraien sexuak markaturik jokatzen baitute, paper bat ala bestea hartuz. Gizonak jasotzen dituzte sistema patriarkalaren onura ekonomiko, sexual eta psikologikoak; hauek jasotzen jarraitzeko, bederen, emakumea estutzen jarraitu behar dute (De Miguel, 2007, 9).

Datozen hamarkadetako feminista gazteek, Feminismo Erradikalaren (EEBB, 1967-1975) ildoan planteamendu iraultzaileagoak izango zituzten, sistema guztiz aldatzea izango zutenak helburu; ikuspuntu marxista hartuz, emakumeak sexu oprimitua kontsideratzen zituzten eta errua alde batetik gizonari eta bestalde kapitalismoari egozten zioten (De Miguel, 2007, 3-4)<sup>2</sup>. Auto-kontzientzia taldeak ere sortu zituzten, Kate Milletek salatutako opresio hartaz antzemateko; emakumeek pairatutako opresio-mota

---

<sup>2</sup> 2. irudia.

desberdinak mahai gainean jarri eta aldaketarako oinarriak izanda hasiko litzake gizarte-aldaketa. Teoria esperientzia pertsonaletan oinarritzen zen (De Miguel, 2007, 9).

Feminismoaren formula berri honek erdi mailako emakume zurien mugimendua izatetik gizartearen beherengo mailalara heltzeko nahia erakusten zuen, koloreko emakumeekin ere uztartuz. Ezker Berriarekin ere bateratu ziren baina alderdikide gizonezkoekiko ere subordinazioan oinarritutako tratua zen; gainera, alderdiaren helburu sozialistek emakumearen aldeko kausaren gaineko lehentasuna zuten. Gizonaren opresioaz ohartu eta beraien kontura biltzen hastea erabaki zuten (Carnero, 2005, 4).

*“Comoquiera que creíamos estar metidas en la lucha para construir una nueva sociedad, fue para nosotras un lento despertar y una deprimente constatación descubrir que realizábamos el mismo trabajo en el movimiento que fuera de él”* (De Miguel, 2007, 5).

Ildo horretatik sortu zen *Mouvement de Libération des Femmes (M.L.F.)*. Erregimen kapitalistan ez ezik erregimen komunistan ere emakumeak opresioan jarraitzen zuela ondorioztatzen zuen; Kate Milletek esan bezala, emakumearen azpiratzearen oinarria sistema patriarkalean datza; hartara, “pertsonala dena politikoa da” (Salas, 1996, 22).

*“(el patriarcado es) una institución en virtud de la cual una mitad de la población (es decir, las mujeres) se encuentra bajo el control de la otra mitad”* (Salas, 1996, 22).

Ondoriozko emakumeen manifestaldiak ugariak eta izaera aniztunak izan ziren. Gorputzaren askapen eta norberaren autonomiaren alde manifestatzen ziren, sexu askatasunaren eta askotan abortuaren legalizazioaren alde<sup>3</sup>, baita emakumeenganako tratu txarren aurka ere. Egoera aztertu eta antolatzeko zentro propioak sortu zituzten bai eta Laguntza eta Elkarlaguntza elkarteak: biolentzia matxistaren biktima zirenei laguntzeko zentroak, defentsa pertsonalarenak, etab. Osasun eta ginekologia feministak ere sortu ziren emakumeek beraien gorpua naturaltasun osoz ezagut zezaten (De Miguel, 2007, 11).

Gainera, Simone de Beauvoirren eraginpean ordura arte gizartean txertatuak eta berezko zat jotzen ziren ezkontza edo amatasuna bezalako instituzioak zalantzan jartzen hasi ziren, emakumea oprimitu eta haren askatasuna mugatzen zutela argudiatuz (De Las Heras Aguilera, 2009, 57), ikusiko dugun bezala.

---

<sup>3</sup> 3. irudia.



## **2. Frantziako testuingurua eta gizarte-giroa Bigarren Sexuaren argitalpenean**

1940. hamarkadako gizarte tradizionala eta katolikoa zen frantziarra, politika anti-liberalak jaulkitzen ari ziren garai batean; indibidualismoa, gizabanakoaren nortasunaren bilketa edo askatasunarena ez ziren ondo ikusiak.

Bestalde, oso gizarte sailkatua zen; indibiduo desberdinak beraien baldintza biologiko zein ekonomikoen arabera banatu eta hauen arabera funtzioa atxikitzen zitzairen. Immobilismora kondenaturik ziren gizabanakoak.

Testuinguru honetan, emakumeei dagokionez eta familiaren baitan, sexuen arteko banaketa zen joera orokorra. Emakume eta gizonei hezkuntza desberdindua emanaz hauen ekintza-esparruak mugatzen ziren, bakoitzari suposatzen zitzaizkion bertuteak landuz (Eck, 1993, 226). “Sexuen metafisika” delakoaren idea hedatu zen: natura edo arrazoian oinarriturik definitzen ziren emakumea edo gizona, azken honen nagusitasun-baldintza hori justifikatuz (Eck, 1993, 314). Amatasuna ez zen gizarte hartan aukerazko kontzeptua, emakumearen baldintza naturala zen, derrigorrezko betebeharra. Feminitatea amaren figurarekin eskutik zetorren (Eck, 1993, 226).

XX. mendeko mugimendu kultural-filosofiko desberdinak, haien artean existentzialismoa, ikuspuntu tradizionalista hauekin hautsi eta sexu segregazioaren aurka azaldu ziren. Maskulino edo femeninotzat jotzen ziren balore tradizional negatiboak suntsitu nahi izan ziren, ordura arteko gizonaren dominatzaile irudiarekin eta emakumearen ahultasun kanonarekin hautsi.

Testuinguru honetan argitaratu zuen Simone de Beauvoirrek *Bigarren Sexua*. Emakume izatearen berezko ezaugarria ziren balore femeninoen ukapena zekarren, maskulinitzat jotzen ziren horiek konkistatu nahi zituelarik; baloreon artean emakumearen amatasunaren mitoa zegoen, patriarkatuak emakume izatearen irudiari atxiki izan dizkion beste kontzeptuekin batera.

## **3. Simone de Beauvoir, feminismoaren historian figura giltzarria**

### **3.1. Bizitza eta obra**

XX. mende erdialdeko idazle, filosofo existentzialista eta feminista esanguratsua izan zen. 1908an jaio zen Frantzian, goi mailako familia katoliko-burges baten baitan. Baina aitak egoera ekonomiko kaskar bat pairatuta, etorkizun oparotsu bat izateko

ikasketak burutzearen erabakia hartu zuten gurasoek (López Pardina, 1998, 14-23). Txikitatik jaso zuen hezkuntza katolikoa. Ikasketak zentro pribatu katoliko batean hasi zituen eta adierazitako baldintzak zirela eta, haiekin jarraitu eta unibertsitatean matrikulatu zen; 1927-1928 artean Filosofian lizentziatu zen Sorbonako Unibertsitatean. Campus-giro honetan ezagutu zituen filosofo garaikideak, bere pentsamenduan eragingo zutenak: Merleau-Ponty eta Lévi-Strauss. Oposizioak prestatzen ari zela ezagutu zuen bere bikotekide izango zen Jean Paul Sartre.

Ezkontza eta familia mota burgesa ukatzen zituen bikoteak eta horren bidez bere autonomia ukatzeari egiten zion errefus; harreman intelektual bat mantentzen zuten. Maitasunean ez-ohiko harreman berritzailea zeramatena, bata bestearentzat beharrezko eta ordezkazekin izanik, maitasun gorena, baina beste batzuei uko egin gabe. Marko honetan egiten zuen topo bere maitale estatubatuar Nelson Algren-ekin.

Emakume garaikideak ez bezala, bizitza publiko produktibo batez gozatzen zuen eta bizitza sozialean ere aktiboki hartzen zuen parte. Konpromezu eta kontzientzia politiko-soziala bereganatu zituen, batez ere 70. hamarkadatik aurrera (Castellanos Llanos, 2008, 27).

1986ko apirilaren 14an hil zen Parisen.

Era guztietako lanak idatzi izan zituen, *La invitada* (1943) bezalako nobelak esaterako, *Para una moral de la ambigüedad* (1947) edo *Bigarren Sexua* (1949) bezalako tratatu filosofikoak. Autobiografiak ere idatzi zituen, *Memorias de una joven formal* (1958), *La plenitud de la vida* (1960) edo *La Vejez* (1968) kasu, bere bizitzaren esperientzietan oinarrituz. Sartre-ren heriotzak eraginda, *La ceremonia del adiós* idatzi zuen (1981) (López Pardina, 1998, 14-23). Simoneren heriotzaren ostean, Sartre edo Algren-i idatzitako gutunak argitaratu ziren.

### **3.2. Bigarren Sexua**

*Bigarren Sexua* 1947 eta 1949 artean idatzitako Simone de Beauvoirren lan nagusietakoa da, gizarte zein historia feministan oihartzun handia izan duelarik, egunean ere eraginez. Obra 2 bolumenez osatutako 25 kapitulutan banatzen da.

Sarreraren autoreak emakumeak hirugarren pertsonan tratatzen ditu, haiekin identifikaturik sentituko ez balitz bezala, multzo batean emakumearen egoera orokorra eta bestean bere

emakume baldintza sartuz. Feminismoaren kontzeptua ere hirugarren pertsonan tratatzen du, bere hasierako asmoa ez zenaren erakusgarri.

Lehenari “*Hechos y Mitos*” deritzo, hiru zatan banatua: “*Destino*”, “*Historia*” eta “*Mitos*”. Honetan emakumearen opresio egoerari buruz hitz egiten da ikuspuntu desberdinetatik (materialismo historikoa, psikoanalisi, existentzialismoa...) eta emakumearen bilakaera historikoa tratatzen du, opresio egoera hori aditzera emanez; azkenik hura justifikatzeko gizonen baliatutako mitoak aipatzen ditu.

Bigarrena, “*La experiencia vivida*”, egungo emakumeen baldintzaren inguruan mintzo da; lehenik eta behin emakumearen formazio edo hezkuntzaren berri ematen du eta honi lotuz emakumeak gizartean dituzten rol desberdinak aipatzen ditu. Inportanteena azken ahapaldia da, “*Hacia la liberación*”; XX. mende erdialdean gerraostean emakumeak bizitako opresio-egoera transmititzen digu eta gizonei errua egotziz, zori hartatik ateratzeko pautak ematen ditu (Palomar Vereá, 1999, 192).

Lanean zehar eta emakumearen egoera definitzekotan, bi tesi nagusi lantzen ditu, filosofia existentzialistan oinarrituak: “*Él es el Sujeto, lo absoluto: ella es el Otro*” eta “*No se nace mujer, se llega a serlo*”.

### **3.2.1. Feminismo existentzialista eta emakumea “Bestea” bezala**

Gizonek, beraien burua subjektu bezala definitzerako orduan emakumeak Bestea bezala definitu izan dute. Hala, talde baten identitatea, gizonena kasu honetan, Bestea deritzon taldearen, emakume eta aurkariena, oposizioaren bidez eraikitzen da. Gizonek emakumea Bestea bezala definituta beraien posizioa eta hartara gizarte eredu patriarkala finkatu eta indartu zuten; hala, Bestea ez da berdintasun-baldintzetan ulertzen baizik eta gizonaren menpeko egoeran.

*“(...) la situación de la mujer (...) siendo una libertad autónoma se descubre y se elige en un mundo donde los hombres le imponen que se asuma como es el Otro.*

*“la reivindicación fundamental de todo sujeto, que se plantea siempre como lo esencial, y las exigencias de una situación que la construye como lo inesencial” (De Beauvoir, I, 1998, 25).*

Beauvoirrek emakumearen izaera opresio honekin lotzen du, kanpotik eraikia izan baita, menpeko eta ahul bezala, desberdintasun anatomiko eta biologikoetan oinarrituz. Honen

bidez emakumea naturarekin lotuko da, erreprodukzioa eta amatasuna emakumearen ezaugarri natural gisa ezarriz.

Gizonek beraien burua traszendente bezala definitu izan dute, helburuak baitituzte; beraien ekintza zein arrazoimenaz baliatuz sortutako asmakizunen bidez haiek eskuratzea heltzen dira, natura gaindituz, eta besteentzako beharrezko bezala aurkeztuz justifikatzen dute beraien existentzia. Era hartara gizaki bizidun aldarrikatzen zuten beraien burua.

Hala, sexu dominatzaileak bigarren sexua deritzon emakumea immanentziara kondenatu du, amatasunera, errepikapenera eta monotoniarra, helburuak eraikitzeke aukerarik gabe, autonomia moztuz (Cid López, 2009, 73). Menpekotasuna eta pasibotasuna onartzea dakar immanentziak. Izan ere, baldintza biologikoa naturala den aldetik ez du arrazoimenaren baldintzaren erabilera suposatzen, gizakien ezaugarri bereizgarri dena.

*“(Ella) es la intermediaria anhelada entre la naturaleza, extraña al hombre, y ese semejante que se le parece demasiado. Ella no se le opone ni con el silencio hostil de la naturaleza ni con el duro requisito de una relación recíproca; debido a un trazo privilegio, ella es un ser consciente y sin embargo parece posible poseerla en su carne”* (De Beauvoir, I, 1998, 172).

Hala, emakumearen izaera gizonarekin (aita, anaia, senarra, maitalea) duen harremanaren bidez definitzen eta gizonarena bere egiten du; bere presentzia gizonaren menpekota eta haren dependentea da.

*“El sujeto puede ser planteado sólo cuando encuentra oposición –se plantea a sí mismo como lo esencial, opuesto al otro, a lo inesencial, al objeto”* (De Beauvoir, I, 1998, 17).

Hala sortzen da “eterno femenino”-aren metodoa; emakumea misteriotsu, magiko, birjina, martir, maitale eta ama izaerekin idealizatzen da (Palomar Vereá, 1999, 199).

Gizonek, munduaren sortzaile eta jaun eta jabe diren heinean, emakumeen inguruko mitoak sortzen dituzte eta hau hartzen da egia absolututzat; mito hauetan oinarriturik sortzen da emakumearen izaera, “femeninoa” dena (Castellanos Llanos, 2008, 37).

*“La representación del mundo, como el mundo mismo, es el trabajo de los hombres; ellos lo describen desde su punto de vista, que confunden con la verdad absoluta”* (De Beauvoir, I, 1998, 177).

*Bigarren Sexuaren* bidez, zentzu honetan, mitoak deseraikiz eta suntsituz, Beauvoirrek emakumezkoen garrantzia historikoa berreskuratu nahi du, opresio eta menpekotasun

egoeratik ateraz eta gizonaren pareko jarriz, subjektu bezala definitu eta askatasuna eskuratzeko.

### **3.2.1.1. Emakumea eta askatasuna, filosofia existentzialistaren ikuspuntutik**

*“Las posibilidades individuales en la humanidad dependen de la situación económica y social”* (De Beauvoir, I, 1998, 60). Hala, emakumea kondentzen duena mendebaldeko gizarte eta kulturaren bizi izan duen bigarren mailako egoera da; izan ere, ikusi bezala, ez da askea, gizaki bizidun bezala aitortzen zen den heinean.

Existenzialismoa XX. mende erdialdean hedatu zen korrante filosofikoa da; askatasunaren filosofia ere izendatu izan da eta Jean Paul Sartre izan zen korrante honetako teorilari nagusia; gizabanakoen askatasuna zuen oinarritzat. Honen arabera gizakia aske, autonomo den heinean, baloreen sortzaile da baina era berean, bere ekintzen erantzule nagusi ere bada. Existenzialismo ateoaren bidez zerutiarrak diren emakumeen gaineko justifikazio maskulino dominatzaileak bertan bera gelditzen dira, ez baita gizaki eta munduaren arteko bereizketarik. Baina gizakiaren proiektu askeek egoeraren araberako mugapenak dituzte.

Beauvoir ez dago baieztapen honekin guztiz ados, izan ere Sartrek ez du emakumea kontuan hartzen; emakume eta gizonen egoerak ez dira inolaz ere berdinak eta hala, emakumeak beraien askatasunaz gozatzeko baldintzatuagoak daude, gizonek oprimituak baitira. Hartara, transzendentzian errealizatu gabe eta autonomia ezin praktikaturik, bere burua gizaki bizidun bezala ezin definitu eta objektu kategoriara makurtzen dira. Logika honen pean eraiki zuen *“no se nace mujer, se llega a serlo”* kontzeptua (López Pardina, 2009, 103-104).

Hala ere, opresioa kanpotik ezarria den heinean askatasuna eskuratzeko ez da ezinezkoa; Beauvoirrek 1949an *“esta liberación debe ser colectiva, y requiere primero que todo que se logre la evolución económica de la liberación de la mujer”* adierazi zuen. Hala ere, garai honetan ez zuen mugimendu feministan sinisten; bere ustez emakumearen askatasuna era automatikoan emango litzake azpiratutako (langile) taldeekin batera, iraultza sozialistaren eskutik (Castellanos Llanos, 2008, 31).

## **4. Bigarren Sexuaren garrantzia historikoa**

Hasiera batean idatzi autobiografikoa izango zen hau XX. mende erdialdeko mugimendu feministen giltzarri izaten bukatu zuen. Emakume izatea zer zen ulertu

nahian, lehen aldiz emakumearen bilakaera historikoa aztertzen da filosofia existentzialistaren metodoa baliatuz eta bi sexuen arteko desberdintasunak eraikiak direla erakustaraziz (López Pardina, 2009, 100). Berarekin eman zen argitara kultura patriarkalaren androzentrismoa, nahiz eta ez zen 60. hamarkadara arte kontuan hartuko (De Miguel Álvarez, 2009, 123).

Beauvoirrek 1940 baino lehenago ez zuen kontzientzia feministarik. Gizonei suposatzen zitzaien hezkuntza jaso zuenez, ez zuen bere garaikideak ziren emakumeen bizi-baldintzetan erreparatu. Sartreren bultzadaren bidez eta “*¿Qué ha supuesto para ti ser mujer?*” galderari erantzunez, gizarte hartan emakume izateak suposatzen zuenaren inguruan hausnartzen hasi zen. Hasieran, eta Simoni bere emakume baldintzak oztoporik suposatu ez zionez, ez zuen galderaren aurrean erreakzionatu; bigarren itzuli batean kasu orokorretan hark suposatzen zituen oztopoez ohartu zen, gizonena zen mundu batean: emakumeak gizonen nahierara izan ziren moldatuak (López Pardina, 2009, 103).

*“Nunca había tenido sentimientos de inferioridad por ser mujer; nadie me había dicho: piensas así porque eres una mujer (...). Para mí ser mujer no ha pesado nada, le comenté a Sartre”.*

*“Empecé a analizarlo y (...): este mundo era un mundo masculino, mi infancia había sido alentada con mitos forjados por los hombres. Y no había yo reaccionado de la misma manera que si hubiese sido un chico (...)”* (De Miguel Álvarez, 2009, 123).

Printzipio ilustratuak eta existentzialismoa ardatz harturik idatzitako obra filosofikoa dugu, feminismoaren arreba nagusizat hartzen den hau. Beauvoirrek existentzialismoaren askatasunaren irizpide hau emakumeen kasura aplikatu zuen, “eterno femenino” -aren iruzurra argitara emateko (López Pardina, 2009, 102).

Gizonek, sexu dominatzaileak, gizarte ordena eta beraien posizio pribilegiatua mantentzearen emakumeen, bigarren sexua deritzonaren inguruan sortutako eta Eliza katolikoak zein zientzia faltsuak babestutako mito, lege eta tradizioak agerian utzi eta deseraikitzen ditu, suntsitu, eta hauek opresio-egoeratik askatzeko baliabide teorikoak luzatzen ditu (Cid López, 2009, 66); gizon eta emakumeak berdintasun egoeran lotu eta hala sexuen arteko demokraziaren oinarriak jarriz (López Pardina, 2009, 101). Hori dela eta, geroko autora desberdinek Beauvoir “*faro del feminismo*” bezala deskribatu izan dute (Cid López, 2009, 67).

Lan honen bidez ikus daiteke kulturak eta gizarteak emakumeek jasotako hezkuntza zein inposatutako rola markatu izan dituela. Beste gizaki batek azpiratua eta haren menpeko izateko izan da hezia mende luzeetan zehar; txikitatik nortasuna ukatua; kanpotik, hasieran aitak eta ondoren senarrak inposatutako opresioak mugatu izan ditu haren eragin-guneak, bere buruaren gaineko segurtasuna ere suntsituz joan den era berean. Hala ere, Beauvoirrek Europa zein Estatu Batuetako emakumeen kontzientzian eragitea lortu izan zuen (López Pardina, 1999, 144).

Jalkitako planteamenduek Bigarren Bolada Feministan irizpide politikoa izatea lortu zuten; emakumeak hauek oinarrian hartuz atera ziren Europa Mendebalde zein Estatu Batuetako kaleetara, beraien askatasuna aldarrikatuz. Filosofia existentzialista errealitate eta ekintzaren filosofia denez, norberaren askatasun eta autonomia dituen oinarritzat eta emakumeek haiek ez zituztela ikusita, bere-bizian eragin zuen haien kontzientzietan. Hala, *Bigarren Sexua* entsegu politikoa ez bada ere, ulertzekoa da gizartean izandako eragina, errealitate bat deskribatzen duen heinean honetan galtzaile diren gizakietan amorruta sortzen baitu; emakumeak era ez-zuzenean bere egoera hobetzera borrokatzera bultzatzen duen entsegu filosofiko bat da (López Pardina, 2009, 106).

1949an, argitaratu zen momentuan ez zuen gizarte kontzientzia sortu Frantzian arnasten zen aipatu giroa zela eta; goraipamenak baino kritikak izan ziren ugariago, bai gizon eta baita emakumeen aldetik ere, nahiz eta askori errealitateaz jabetzeko bidea ireki. Garaian Eliza katolikoak kondenatu egin zuen. Hala ere, eta 70. hamarkadan, mugimendu sozial eta iraultzaileen ildoan berreskuratu eta orduan barneratu zituzten emakumeek Beauvoirren ideiak (Cid López, 2009, 66).

## **5. 70. hamarkadako feminismoan Beauvoirren planteamenduek izandako eragina**

### **5.1. Generoaren eraikuntza sozio-kulturala**

“*No se nace mujer, se llega a serlo*” esaldi famatuarekin hasten du Simone de Beauvoirrek *Bigarren Sexuaren* bigarren liburuxka. Honen arabera, sexua naturala da baina generoa baldintza biologikoa baino, eraikuntza sozio-kulturala da, sortua, kanpotik, gizonek inposatua lege eta ohituren bidez; emakumea objektu sexuatu egiten duena eta honen existentzia indibidualaren baldintzagarria (Verea Palomar, 1999, 191). Ez da esentzia eta “eterno femenino”-aren mitoarekin hausten du. Femeninotzat jo eta emakumeak berezki dituen ezaugarri horiek kondenatzen ditu, balore maskulinoak edo gizonari suposatzen zaizkionak ere kondenatzen dituelarik (Cid López, 2009, 72).

Eraikuntza da, hezkuntzaren bidez gizonari maskulinitateak berezkoak dituen baloreak inposatzen baitzaizkio (ausardia, kemena, indarra, arrazoimena), emakume izateari feminitatea uztartu dion bezala (ahula, apala, makurra, pasiboa, isila, erabakirik gabea eta zalantzatua, sentimental, maitakorra) (Cid López, 2009, 73). Faktore biologikoek ez dute zertan gizakien izaera deskribatu. Hau da, izatera goazena ez da jada garena; izatera heltzea zera da, hartarako egiten diren ekintza intenzionalen multzoa, trebetasun batzuk bereganatzen joatea proiektu jakin baterako, kulturalki ezarria dagoen bizimodu bat izatera heltzeko.

Txikitatik bereizten da neskatxei eta mutikoei inposatutako hezkuntza-sistema; neskatxak, beraien burua defendatzen ikasi ez duten heinean, ahula, makurra..., eta oro har, gizonen (aita zein senarraren) menpekoak lirateke; gainera, txikitako jostailu den panpinaren bidez identifikatzen dira, ama imitatuz amatasun sena bereganatuz; panpinak bezalakoak izan behar direla irakasten zaie, objektu eder eta pasiboak. Atsegindua izateko objektu egin behar direla erakusten zaio, bere autonomiari uko eginez. Mutikoak berriz, independentzian hezitzen dira, sentimenduei uko eginda. Hauengan ere balore maskulinoak inposatzen dira. Era hartara ulertzen du neskatxak munduaren jabeak gizonak izanez, bera menpeko izatera kondenatua dagoela (López Pardina, 1999, 141).

Hala, esan bezala, justifikatzeko mitoetan oinarritutako lege eta tradizioak inposatzen dira literaturaren eta haurrentzako ipuinen bidez, ideioek era ez-zuzen batean sartuz; printzipe eta printzesen ipuinek printze ederrak noiz salbatuko esperoan diren emakume pasiboak deskribatzen ditu, sentimendu eta sentiberatasunez beteak; gizonak berriz ekintza heroikoen bitartez aurkezten dira (López Pardina, 2009, 104).

Beauvoirrek hortaz, ez ditu emakumearen gorputza eta eratorriak ukatzen, baizik eta baldintza hauen ondorioz inposatutako menpekotasunak. Lehenak bigarrena automatikoki dakar.

Tesi honek feministen artean sortu du eztabaida. Kritiken aurrean zera dio, femeninoa dena ukatzea ez dela emazte eta ama izatea ukatzea, baizik eta emakumeek beraien erabaki propioak hartzea, tradizioaren indarrak haiengan eragin gabe; emakumea askea da bere erabaki propioak hartzeko, ezkondu eta ama izatea erabakitzeko. Feminismoak ez du zertan ezkontza eta amatasuna suposatu baina ukatu ere ez ditu egiten.

*“Veo mujeres de las que se puede decir que son femeninas (porque se casan y tienen hijos) vivir de una manera con la cual estoy enteramente de acuerdo:*



*tienen un trabajo, mantienen con su marido –y cada vez más- relaciones de igualdad, o hasta superioridad, a veces. Sería un error pensar que para ser feminista no hay que tener hijos de ninguna manera”.*

Beauvoirren asmoa emakumeek transzendentzia praktikatuz beraien autonomia eskuratzea izan da, gizaki-izaera izatera heltzea (López Pardina, 1998, 359). Feminitate tradizionalaren baloreak ukatzen ditu. Izan ere, momentura arte hauetaz gizonek baino gozatu ez badute ere, ez dira gizonen balore propioak; unibertsalak dira jatorriz baina historiaren puntu batean hauek monopolizatu eta bere egin zituzten (López Pardina, 1999, 155).

## **5.2. Amatasuna**

*“La experiencia vivida”*, *Bigarren Sexua*-ren bigarren liburuxkan egiten du gaiaren inguruko hausnarketa. Helburua amatasunaren mitoa argitara ematea du, eraikuntza sozio-kulturala dela adieraziz eta ez baldintza naturala.

Baldintza biologikoa dela eta, historikoki emakumeari funtzio eta helburu goren bezala atxiki zaio amatasuna; legitimatuz, emakumearen bokazio eta funtzio naturalizat jo eta hala finkatu izan da. Amatasunari lotuz, automatikoki eta espeziearen jarraikortasunerako bere indibidualtasunari egiten dio uko alde batetik (Castellanos Llanos, 2008, 30), eta bestalde esparru pribatu eta domestikoarekin identifikatu izan da emakumea; ondorioz boterea hartan kontzentratu izan da, esparru publikotik aldendua (López Pardina, 1998, 363).

Emakume askok irizpide hau ukapen bezala interpretatu bazuten ere, ez zuen ukatzen. Ama izateko emakume bakoitzaren eskubidea aldarrikatzen zuen, beti ere erabakia era askean hartzen bada. Amatasunak hortaz, ez dakarkio emakumeari onura pertsonalik emakumea izatearen baldintza soilagatik (López Pardina, 2009, 104).

*“¡No, no! ¡No la rechazo! Solamente pienso que hoy por hoy es una singular trampa para la mujer (...). Lo que es condenable no son las madres, sino la ideología que invita a todas las mujeres a ser madres y las condiciones en las cuales deben serlo”* (López Pardina, 1998, 364).

Kondenatzen zuena sistemaren funtzionamendua zen, neskatxak amatasunaren baloreetan heztea gizartearen banaketa tradizionala bermatzeko. Beauvoirrek amatasuna emakumeak pertsona bezala errealizatzeko beste aukera batentzat jotzen zuen eta ez emakumeen irtenbide bakartzat. Hala, amatasuna ezarria den heinean, opresioaren

aitzakiatzat jotzen zuen eta pertsona sozial bezala hezteko oztopotzat (López Pardina, 1998, 364).

*“(...) milito por su libertad: libertad para la maternidad, para la anticoncepción, para el aborto (...)”<sup>4</sup>* (López Pardina, 1998, 365).

Amatasunaren tranpa gizarte patriarkalean barneratua dagoen kontzeptua da, ezkontza eta familiaren formulen pean. Hala, Beauvoirrek aipatu instituzioak suntsitu behar zirela adierazten zuen tranparekin bukatzeko, eta hala emakumeen benetako askatasuna eskuratzeko.

Hau kondenatuz familia kondenatzen zuen. Emakumeari etxeko lanen amaigabeko lan-orduak inposatzen dizkion tranpa da, emakumearen egiteko naturaltzat ematen direnak. Emakumea egunerokotasunaren errepikapenera kondenatuz emaitza etsitako emakume oprimitua izango litzake (López Pardina, 1998, 365). Hori dela eta amatasun askea ezartzen zuen, inolako instituziori loturik egon gabe, erabaki aske baten emaitza moduan.

*“Creo que el matrimonio es peligroso para la mujer (...). Si se quiere ser verdaderamente independiente, lo que cuenta es tener una profesión, trabajar. (...) Es una condición necesaria. Te permite, cuando estás casada y quieres divorciarte, marcharte, mantener a los hijos, asumir tu propia existencia”* (López Pardina, 1998, 366).

Gizarte patriarkalak amatasunaren kultura aldarrikatzen du bere helburuak lortu eta independentzia ekonomiko-soziala gizonaren gain soilik izateko, baina amatasuna bere borondatearen arabera planifikatuz arazoa desagertuko litzakeela adierazi zuen. Autonomiarako baldintzailea baita baina ez erabakigarri.

Baina honetarako gizartea moldatu beharra zegoen (haurtzaindegiak, abortu eta metodo antisorgailuen legalizazioa...), emakumearen benetako askatasuna emateko oinarririk behinena ikasketak jaso edo soldatapeko lana baitzen eta hura eskuratu eta burutzeko denbora librea behar baitzuen, ekintzok ahalbidetzen ez ziena (López Pardina, 1998, 366).

*“Hay pocos temas con los que la sociedad burguesa despliegue mayor hipocresía: el aborto es un crimen repugnante al que es indecente aludir (...). Es un fenómeno tan extendido que hay que considerarlo como uno de los riesgos que implica normalmente la condición femenina. La ley se obstina sin*

---

<sup>4</sup> 4. irudia.

*embargo en convertirlo en delito: exige que esta operación delicada se realice clandestinamente” (De Beauvoir, 1998, 264).*

### **5.3. Emakumea eta lana**

Ikusi bezala, emakumearen soldatapeko lana da bizitza publiko eta sozialean eskuhartzea izan eta autonomia eskuratzeko baldintzarik behinena. Autonomia ekonomikoa ez izatea zela gizonaren menpeko egiten zituena adierazi zuen:

*“Creo que una de las claves de la condición impuesta a la mujer es el trabajo que se le arrebató, un trabajo no asalariado que le permite justo ser mantenida más o menos lujosamente, más o menos míseramente, por su marido, pero que no produce plusvalía. El valor de adaptación al trabajo no es reconocido” (López Pardina, 1998, 367).*

Izan ere, etxeko lanak emakumearen esplotazioa suposatzen du. Amaigabeko lanorduek ez dute konpentsazio ez ekonomiko eta ez sozialik. Gainera ama ezkongabeak ez zuen familia mantentzeko baliabiderik, lanik izan ez eta gizarteak eskatzen zuen beharrezko prestakuntza gabe (López Pardina, 1998, 370).

XX. mendean emakume askok izan zuten soldatapeko lana baina honek gizonaren soldataren betegarri bezala funtzionatzen zuen, bigarren mailakoa, lehentasuna etxeko lanari emanaz (Carnero, 2005, 5). Hori dela eta esparru domestikoaren sozializazioa proposatzen zuen, emakume, gizon zein seme-alaben artean etxeko lanak banatzea. Hau da, lehenik eta behin hainbat emakumek pairatzen duten esklabotza domestikoaren aurka borroka egitea, ondoren soldatapeko lan duin baten alde borrokatzeko (López Pardina, 1999, 157).

Bestalde, ez zegoen ados etxeko lanaren konpentsazio ekonomikoarekin; emakumea opresiora are gehiago kondenatzea dela uste zuen, etxeko lana ofiziotzat hartzea suposatzen baitzuen, sexuen araberako lan banaketa betiereko finkatuz.

*“Bien, es eso justamente, esa condena a vivir en el gueto doméstico, esa división entre trabajo masculino y femenino, trabajo fuera y dentro, lo que las mujeres deben rechazar si quieren llegar a ser totalmente seres humanos. Así pues, estoy en contra del salario para las amas de casa” (López Pardina, 1998, 371).*

Emakumeen lan-egoera moralarekin lotuz, boteredun postuetara iristeko pertsonen kualifikazio profesionala kontuan izan behar bada ere, emakumeek ez lituzkete onartu beharko sistema mantentzea ahalbidetzen dituzten postuak. Hau da, gorengo mailako

postuetara iristea pertsonaren abileziaren araberakoa da, sexu bereizketarik egin gabe; baina kontuan izan behar da lanpostuok zer suposatzen duten, zein den babesten duten sistema. Izan ere,

*“Las mujeres corren mucho riesgo de caer en la trampa, porque ejercerán el poder que esa calificación les otorgue en el mundo de hombres que tienen casi la totalidad del poder”* (López Pardina, 1998, 371).

#### **5.4. Emakume eta gizonen arteko harremanak**

Gizonek mundua eta hartan diren asmakuntza guztiak sortu dituzte baina ez gizonak diren neurrian, baizik eta gizaki bizidun ahalguztidun eta unibertsaltasunaren ordezkari diren heinean.

Opresiotik ateratzea sexuen arteko elkarlanaren fruitu izango zela argudiatu zuen, harreman harmoniatsu bat mantenduz. *Bigarren Sexuan* emakume eta gizonaren arteko lan-banaketaren inguruan azaltzen dituen kontzeptuak 70. hamarkadan erradikalizatu zituen. Hura ezin zitekeen laguntasun-harreman baten bidez burutu, berdintasunera heltzeko lege horien aurrean 60 eta 70. hamarkadetan zehar gizonek erresistentzia erakutsi baitzuten (López Pardina, 1999, 158). 1976an beste sexuari aurrez aurre jarriz erroka egitea planteatzen zuen, parean jarriz, eutsiz.

*“Como es de los pobres arrancar el poder a los ricos, es de mujeres arrancar el poder a los hombres”* (López Pardina, 1999, 158).

*“Lo esencial de la lucha de las mujeres contra los hombres es una lucha contra la opresión, porque el hombre trata de acantonar a la mujer en una posición secundaria”* (López Pardina, 1998, 377).

Emakumeen askapenerako mugimenduen aurrean, gainera, laguntza luzatu ez eta opresioa mantentzeko formula gogorrakoak baliatzen zituzten. Eraitza biolentzia eta bortxaketen gorakadan ikusi izan zen. Egoeraren aurrean emakumeek ere borroka-bide berdinen bidez erantzutea eta hartarako prestakuntza fisikoaren beharra planteatu zuen (López Pardina, 1998, 377).

Izan ere, ulertu beharra dago askapen eta berdintasunerako mugimendu hauek ematen hasi eta gizonek mendeetan zehar mantendu izan zuten nagusitasuna arriskuan ikusi zutela; sistema zegoen bezala mantendu nahi zuten, munduaren gaineko beraien domeinua ezartzen jarraitzearen aldekoak ziren.

## **6. Simone de Beauvoirren militantzia neo-feminista**

*Bigarren Sexuarekin* heldutasun puntua hartu eta 60. hamarkadatik aurrera ere joerarekin jarraitu zuen. Aktibitate politiko eta intelektualari ekin zion geroz eta gehiago marko publikoan; bere garai historikoarekiko konpromezu handia erakutsi zuen. Obraren ondorioz izan ere, Beauvoirrek entzutea izan zuen Frantzia, Europa eta Estatu Batuetan; 60. hamarkadako Bigarren Bolada Feministaren oinarri sendo bat izango da *Bigarren Sexua*, hartan bildutako ideia desberdinak jasoko baitituzte zetozen hamarkadetako emakumeek. Berak ere parte-hartze aktiboa izango du<sup>5</sup>, idazle ez ezik instituzio eta ekintza publiko edo aldarrikapen desberdinetan arituko baita (López Pardina, 1998, 253). Hala, eta mugimendu eta iraultzen garai honetan bere konpromezua dela eta, jarrera ere erradikalago bihurtzen da.

Emakumearen askapena lortu nahian *Bigarren Sexuan* ere, “*Hacia la Liberación*” deritzon azken pasartean eman zituen askatasun hau lortzeko pautak. Hartarako, ikusi bezala, emakumeak lehenik eta behin, independentzia ekonomikoa eskuratu behar zuten eta bigarrenik afektiboa. Neska zein mutilengan berdintasunean oinarritutako bereizketarik gabeko hezkuntza-sistema planteatzen zuten. Hala ere, helburu hau posible egiteko beharrezkoa zen gizartean aldaketa bat gertatzea.

1970ean neo-feminismo munduan murgilduta ikusten dugu *Mouvement de Libération des Femmes* mugimenduarekin bat egiten duen unean, “*una forma de vivir individualmente y una forma de luchar colectivamente*” bezala definitzen zuena. Era hartara hasi zuten bere militantzia feminista.

Emakumeen kausaren gaineko kontzientzia hartuz joan zen hala. Lehen zantzuak 50. hamarkadan, aurkitzen dira, *Bigarren Sexuaren* argitalpena izan zela eta begiak irekitzeagatik eskerrak emanaz hainbat emakumek idatzitako gutunek eraginda (López Pardina, 2009, 106).

### **6.1. Berdintasuneko feminismoa**

Berdintasuneko feminismoa zen Simone de Beauvoirrek jarraitzen zuen korronea. Ilustrazioan eta marxismoaren ideietan ditu oinarriak. Honek sexuen arteko harreman desberdinak eta gizonaren nagusigoa suposatzen duten horiek identifikatzen ditu, azaleratu eta suntsitzeko (Collin, 1993, 316).

---

<sup>5</sup> 5. irudia.

Garaiko Berdintasuneko Feminismoaren helburua emakume eta gizonentzat espazio komun bat sortzea zen, bi sexuentzat eskubide-berdintasuna planteatzen zuen; horretarako indarrean zegoen “identitate” maskulinoa konkistatu behar zuten, desberdintasun indibidual edo kolektiboak albo batera utziz (Collin, 1993, 318). Bi sexuek berezkozat dituzten balore “positiboak” bateratu nahi ditu eta guztiengana hedatu.

70. hamarkadan Berdintasuneko Feminismo korrontearen paraleloan, Desberdintasuneko Feminismoa deritzon beste korronte bat sortu eta hedatu zen. Azken honek ez bezala, Beauvoirrek ez zituen sexuen gerra eta balore femeninoak sortu nahi.

*“(…) no creo que haya cualidades, valores, modos de vida específicamente femeninos; eso sería admitir la existencia de una naturaleza femenina, es decir, adherirse el mito inventado por los hombres para mantener a las mujeres en su condición de oprimidas. No se trata de que las mujeres hayan de afirmarse como mujeres, sino de convertirse en seres humanos completos”.*  
(López Pardina, 1998, 350).

Militante feminista bazen ere, Feminista Erradikalek, *M.L.F.* mugimenduko emakumeek, ez zuten politikgintzan parte hartzen, hark, adierazitako arrazoiengatik, ez baitzuen gorigorian zen emakumeen auzian arreta jartzen. Borroka feminista aparteko borroka bat bezala interpretatzen zuten (López Pardina, 1998, 352).

Hala, adar honetatik jo zuen. Gizartearen, sistemaren aldaketa oinarritik hasi behar zen, sistema patriarkala gainditu nahi bazen. Hau emakumeen indar bateratuen bidez egingo litzake, borroka sozialaren, aldarrikapen, manifestaldi edo instituzio desberdinen bidez. Ideion jatorria *Bigarren Sexuan* aurkitzen da (López Pardina, 1998, 370).

## **6.2. Sistemaren kondena: Kapitalismoa eta Sozialismoa**

Bere autobiografiaren azken bolumenean halaxe adierazi zuen:

*“Si he tomado parte en manifestaciones, si me he comprometido en una acción propiamente feminista, es que mi actitud con respecto a la condición de la mujer ha evolucionado”.*

*“ahora entiendo por feminista el hecho de luchar por reivindicaciones propiamente feministas, paralelamente a la lucha de clases, y me declaro feminista”* (López Pardina, 1998, 347).

Honetan argi ikusten da pentsamendu aldaketa; Ekialdera egindako bidaien ondorioz ikusi zuen sozialismoak ez zekarrela emakumearen askapenik eta hala, borroka feminista

klase borrokatik at eman behar zela. Sozialismoak ez zituen emakume eta gizon berri bat sortuko, produkzio-harremanen aldaketa bat baino. Gizartea ez zen aldatu, gizatasunaren pentsamoldea ere aldatu ez baitzen eta hartara emakumeek menpeko egoeran jarraitzen zuten. Sozialismoak emakumeari lan munduan sartu eta bizitza publiko eta politikoan parte hartzeko aukera ematen bazion ere, ez zen hura lortzeko nahikoa izan (López Pardina, 1999, 154).

Izan ere, *Bigarren Sexuaren* arabera emakumearen askapenagatik ez da borrokatu behar, hau sozialismoarekin batera iritsiko baitzen. Era hartara, borroka feminista borroka sozialista bilakatzen zen, klase interesak emakumeen interesei gainjarriz. Hala adierazi zuen 1972an:

*“Lo que he podido constatar y que me ha llevado a modificar mis posiciones de El Segundo Sexo es que la lucha de clases no emancipa a las mujeres (...), siempre hay una subordinación de la mujer al hombre. Por lo tanto, me he convencido de que era necesario que tomaran las riendas del problema de la mujer (...)”* (López Pardina, 1998, 347).

Ondorioz, gizarte modernoetako sistema menderatzailearen errudun bakartzat ez du kapitalismoa jotzen.

*“El sistema [capitalista] machaca a los hombres y a las mujeres e incita a estos a oprimir a aquellas (...) Mantendrá sus prejuicios, sus pretensiones, incluso aunque cambie el sistema”* (López Pardina, 1998, 348).

Hau da, sozialismoa eta kapitalismoa plano berean kokatzen ditu; patriarkatua gainditzea ez da jada sistemaren kontua, baizik eta gizateriarena; gizartea, kultura, tradizio, lege eta abarrak errotik aldatu behar dira. Emakume eta gizonen arteko borroka, testuinguru honetan, lehen planoko garrantzia hartuko zuen, borroka sozialen itzalpetik atera eta borroka independente bilakatu (López Pardina, 1998, 349).

### **6.3. Abortuaren aldeko borroka**

1970eko urrian feminista talde frantses batek abortuaren aldeko manifestu bat argitaratzea erabaki zuten, legalizatuz eta arriskurik gabeko prozesua izan zedin: ondoren *343en Manifestua* izenez ezagutuko zen<sup>6</sup>. Honetan 343 emakumek abortua era ilegal edo klandestinoan praktikatu izana aitortzen zuten. Anne Zelensky eta Christine Delphy<sup>7</sup> izan

---

<sup>6</sup> 6. irudia.

<sup>7</sup> 1968ko Mugimendu Feministaren buruen parte eta Mugimendu Demokratiko Femeninoaren kideak.

ziren sustatzaileak. Hauek iritzi publikoaren arreta lortzeko gizartean esanguratsuak ziren pertsonen zinaduren bila ari zirela Simone de Beauvoirren atea jo zuten, feminismo arloan gizartean izan zuen influentzia zela eta. Sinaduran halaxe deklaratu zuen Beauvoirrek:

*“Cada año aborta un millón de mujeres en Francia. Lo hacen en condiciones peligrosas motivadas por la clandestinidad, cuando la operación, practicada bajo control médico, es de las más sencillas. Se guarda silencio sobre ese millón de mujeres. Yo declaro que he abortado”* (De Miguel, 2009, 132).

Mugimenduarekin bat eginda, zinadurak jasotzeari ekin zion. Guztira 343 sinadura bilduta, manifestua publiko egin zen 1971ko apirilaren 5ean *El Nouveau Observateur* aldizkarian. Ordura arte hitz tabua zen “abortua” lehen aldiz hedabideetan zehar hedatu zen, irriti zein telebistan. Ekintza honen bidez hasi zen Beauvoir borroka feministan militatu eta lehen pertsonan parte hartzen. Ekintzak abortuaren legalizazioa eragin zuen Frantzian, 1975ean (De Miguel Álvarez, 2009,132-133). Ondoren mendebaldeko beste herrialdetara ere hedatu zen, Espainiara, esaterako; 1985ean egin zen legezko muga edo baldintza batzuen pean<sup>8</sup>.

Auzi pribatu eta pertsonala zen sexualitatea ere plano politikora eraman zuen; feminismo mugimenduaren parte izan zen askatasun sexualaren aldarrikapena. 70. hamarkadan sexuaren inguruko auto-kontzientzia taldeak sortu ziren. Esperientzia pertsonalak publiko eginez, patriarkatuak emakumeen sexualitatearen inguruan eraikitako mito eta gezurrak argitara eramatea lortu zuten.

*“Si tuviera que volver a escribir mis Memorias, haría un balance muy honesto de mi sexualidad, porque no es una cuestión individual, sino política (...)”* (De Miguel Álvarez, 2009, 133).

## **7. Ondorioak**

Mugimendu feministaren lehen zantzuak XVIII. mendean aurkitzen dira; Lehen Bolada Feministan eskubide politikoak eskuratu zituzten baina Lehen Mundu Gerraren testuinguruan indarra galdu zuen. Gerra-artean argitaratu zuen Simone de Beauvoirrek aztertu berri dugun *Bigarren Sexua*, emakumearen kausaren inguruan hausnartu, opresio egoera bat salatu eta haren jatorriak adieraziz askapenerako pautak adierazten zituen. Honetan adierazitako ideiak 50 urte beranduago, 70. hamarkadan berreskuratu eta

---

<sup>8</sup> 7. irudia.



oinarriztat hartuz hasi zen, orduan aldatzen ari zen gizarte ezegonkor batean, Bigarren Olatu Feminista.

Betty Friedan-ek *Feminitatearen Mistika* (1963) idatzi zuen Beauvoirren planteamenduek eraginda eta *National Organization of Women* (1966) fundatu, emakumearen autonomia eta sexu-berdintasunaren borrokatzeko. Kate Millet-ek *Politika Sexuala* (1969) idatziz, Beauvoirren planteamenduak haratago eramane zituen “pertsonala dena publikoa da” esaldiaren bidez.

Emakumearen Askatasunerako Mugimenduak (M.L.F.), feminismo erradikalaren ildoan sortua, sistemaren formula oro, kapitalismoa zein sozialismoa kondenatzen zituen. Honek feminismoa mugimendu aske baino kontzientzia kolektiboduna bezala definitzen zuen; aurreko garaian ez bezala, emakumeen borroka indibiduala baino kolektiboa, emakume guztien batasunezkoa behar zuen izan. Simonek ere bat egin zuen mugimendu eta planteamendu hauekin.

Izan ere, *Bigarren Sexuan* (1949) emakumearen opresio egoeraren jatorriak bilatzekotan gizonak bere burua Absolutua bezala definitzen zuela zioen, subjektu bezala, eta emakumearen kategoria bere parekotzat ez onartuta, automatikoki Bestea bezala deskribatzen zela, objektua. Subordinazio honen jatorria gizonarekiko emakumeak zuen desberdintasun anatomiko, biologiko eta fisikoan kokatzen zuen; beraien baldintza biologikoa, erreproduzioarena, baldintza naturala zela argudiatzen zen. Hala, gizonak gauzatu zuten naturaren gaineko kultura, traszendente bezala altxatuz. Ondorioz era automatikoan emakumea esparru pribatura kondenatu zen, errepikapenera eta immanentziara. Gizonak, mundua menperatu, mugak ezarri eta hauek gainditzeko zuten kapazitatea zela eta arrazoiarekin lotu ziren, gizaki kategoria hartzen zuten. Sexu garaileak mitoen bidez mendeetan zehar eta diskurtsoa aldatuz indartu eta egonkortuko zuen egoera hau.

Abiapuntu honetatik salatzen du Beauvoirrek obran generoa, naturala baino emana dela, tradizio, kultura eta hezkuntzaren bidez ezarria txikitatik, gizarte patriarkala bermatu eta gizonaren munduaren gaineko agintea justifikatzeko. Hala sistema patriarkalak hau mantentzeko zenbait tranpa ezarri ditu; hasteko, amatasunarena, hura emakumearen baldintza naturala dela esanez; honi lotuz, ezkontzaren eta familiaren tranpa. Emakumeak independentzia ekonomikoa ez izatea ahalbidetzen dute, gizonaren pean bizitzera kondenatuz, esferen zatikatzea mantenduz: emakumeak, amatasuna dela eta esparru


pribatuan eta gizonak familia bere soldataz mantentzeko, esparru publikora. Ideia hau argitara emanaz, emakumearen benetako autonomia emateko pautak esarri zituen; sistema suntsitu eta gizarte berri bat eraiki beharra zegoen, berdintasuna ardatz harturik. Hasteko, lan domestikoaren sozializazioa, emakumearen denboraren ehuneko handi bat har ez zezan. Ondoren emakumeak autonomia ekonomikoa eskuratu behar zuten, soldatapeko lanaren bidez; gizonezkoen baldintza berdinen pean eman behar ziren, eskubide berdinekin baina inolaz ere ez patriarkatua mantentzea ahalbidetuko zuten lanpostuak onartuz.

Gainera, eta amatasuna eta ezkontza kondenatuz, instituzioak suntsituz, amatasun askea ezartzen zuten, baldintza naturalaren mitoa ukatuz. Aukeraketa askearen kontzeptua errealitate eginez, antisorgailu edo abortuaren legalizazioa planteatzen zituen, besteren artean.

Askatasunerako handicap bezala deskribatu zuten amatasuna, erabakigarria baino baldintzagarria baino ez zela argudiatu zuten; hori dela, gizartean zenbait aldaketa ezarriz (haurtzaindegi publikoak esaterako), soldatapeko lana eta amatasunaren arteko bateragarritasuna posible zela adierazi zuten.

Garaiko Frantzia eta gizarte tradizional eta katolikoan ideiak ez zuten harrera onik izan baina 70. hamarkadan hauek barneraturik hasi ziren emakumeak opresiotik ateratzeko borrokan. Beauvoirren feminismoa ere erradikalizatu egin zen, M.L.F. mugimenduarekin bat eginda, militante egin zen Berdintasunezko Feminismoaren ildoan. Emakumeen mugimendu hauen aurrean gizonek erresistentzia erakutsi eta biolentzia handiagoaz erantzun zuten, adierazitako nagusitasun hura galtzeko arriskua ikusi zutenean.

## 8. Eranskina



1. *Irudia*: Gloria Stein-ek egindako aldizkari baten azala. “Mujer Maravilla” ageri da gizateria gerra eta kaosagandik salbatzen; emakumea boteretsu azaltzen da, ekintzaile, superheroi gisan irudikatua. “Peace eta justice”, bakea eta justizia erreklamaten da 1972. urterako. Simone de Beauvoirren feminismo berriari egiten dio aipu, mugimenduaren ardatzean kokatuz (Ergas, 1993, 561).



2. *Irudia*: “Estalduko ote ditu makilajeak opresioaren zauriak?” “Miss Amerika” erabakitzen den egoitzaren aurrean (Ergas, 1993, 543).



3. *Irudia*: M.L.F.-ko emakumeak abortuaren aldeko manifestaldi batean. Arropa eta zapata erosoek “emakume ona”, eredugarriarekin hausten dute. Haientzat justua den zerbaiten aldeko mugimendu kolektiboa da (Collin, 1993, 327).



4. *Irudia*: Simone de Beauvoir abortuaren aldeko manifestaldi batean.



5. *Irudia*: Simone de Beauvoir prentsa askatasunaren alde manifestatzen (López Pardina, 1999, 153).



6. *Irudia*: Abortuaren aldeko manifestaldi bat Frantzian. “Frantzian urtero milaka emakume dira abortu klandestinoaren biktima” (Ergas, 1993, 558).



7. *Irudia*: Abortuaren aldeko manifestaldien hedapena: Espainiako kasua: eskuak bulba forman jarritz, espainiar emakumeek abortatzeko egin beharreko bidaia adierazten da (Ergas, 1993, 554).

## 9. Bibliografía

- CARNERO Silvia. “La condición femenina desde el pensamiento de Simone de Beauvoir” in *A Parte Rey. Revista de filosofía*, (2005), 1-8.
- CASTELLANOS LLANOS Gabriela. “Releyendo *El Segundo Sexo*” in *La manzana de la discordia* (2008) 3. bol, 2. zk, 27-39.
- CID LÓPEZ Rosa María. “Simone de Beauvoir y la historia de las mujeres. Notas sobre *El Segundo Sexo*” in *Investigaciones Feministas* (2009), 0. zk, 1-12.
- COLLIN Françoise. “Diferencia y diferendo: la cuestión de las mujeres en filosofía, in THÉBAUD Françoise (zuz) in *Historia de las Mujeres, El siglo XX*, Madrid: Taurus, 1993, 291-322.
- COLLIN Françoise. *Se nace mujer y se deviene. La ambigüedad de Simone de Beauvoir*, in “Jornada de Homenaje a Simone de Beauvoir” (2008), Madrid.
- DE BEAUVOIR Simone. *El Segundo Sexo. Volumen I, Los Hechos y los mitos*, Madrid: Ediciones Cátedra S. A., 1998.
- DE BEAUVOIR Simone. *El Segundo Sexo. Volumen II, La experiencia vivida*, Madrid: Ediciones Cátedra S. A., 1998.
- DE MIGUEL ÁLVAREZ Ana. “El legado de Simone de Beauvoir en la genealogía feminista: la fuerza de los proyectos frente a “La fuerza de las cosas”” in *Investigaciones Feministas* (2009), 0. bol: 121-136.
- DE MIGUEL Ana. “Los feminismos a través de la historia. Neofeminismo: los años 60 y 70” in *Mujeres en la Red. El periódico feminista* (2007) Web: 2016ko apirilak 29. <http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1311>.
- DE LAS HERAS AGUILERA Samara. “Una aproximación a las teorías feministas” in *Universitas. Revista de Filosofía, Derecho y Política* (2009), 9. zk., 45-82.
- ECK Hélène. “Mujeres del desastre. ¿Ciudadanas por el desastre? Las francesas bajo el régimen de Vichy (1940-1944), in THÉBAUD Françoise (zuz.). *Historia de las Mujeres, El siglo XX*, Madrid: Taurus, 1993, 223-256.

- ERGAS Yasmine. "El sujeto mujer: el feminismo de los años setenta-ochenta" in THÉBAUD Françoise (zuz) in *Historia de las Mujeres, El siglo XX*, Madrid: Taurus, 1993, 539-566.
- LÓPEZ PARDINA María Teresa. "Beauvoir, la filósofa existencialista y el feminismo" in *Investigaciones Feministas* (2009), 0. bol, 99-106.
- LÓPEZ PARDINA María Teresa. *Simone de Beauvoir. Una filósofa del siglo XX*, Cadiz: Servicio de publicaciones de la Universidad de Cádiz, 1998.
- LÓPEZ PARDINA Teresa. "Simone de Beauvoir y el feminismo posterior. Polémicas entorno a *El Segundo Sexo*" in *Arenal. Revista de historia de las mujeres* (1999), 6. bol, 1.zk, 135-162.
- VEREA PALOMAR Cristina. "Cincuenta años de *El Segundo Sexo*" in *Revista de estudios de género. La Ventana* (1999), 9. zk. 190-200.
- VVAA, "¿Qué es el feminismo? - Claves de feminismo -", in *Mujeres en la Red. El periódico feminista* (2008), Web: 2016ko apirilak 29. <http://www.mujaresenred.net/spip.php?rubrique53>.
- "Historia del Feminismo y origen del género", *VIII Jornadas contra la LGTB fobia* (2009) Seseña (Toledo).